



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 28a

116. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, aparteko kreditu bat ematekoa, 100.000 eurokoa, haren bidez bizikletentzako bi bide finantzatzeko, Zuñigan eta Metautenen. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzardeak onetsia (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ostalaritzaren, gaueko aisialdiaren eta disko-
teken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzardeak ezetsi du (3. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakiaren bidez onetsia (4. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, aparteko kreditu bat ematekoa, 100.000 eurokoa, haren bidez bizikletentzako bi bide finantzatzeko, Zuñigan eta Metautenen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko urriaren 22an egindako Osoko Bilkuran, 100.000 euroko aparteko kreditu bat emateko Foru Legea onetsi zuen, Zuñigan eta Metautenen bizikletentzako bi bide finantzatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2020ko urriaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, aparteko kreditu bat ematekoa, 100.000 eurokoa, haren bidez bizikletentzako bi bide finantzatzeko, Zuñigan eta Metautenen

ATARIKOA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak eskatu du honako partida hau sortzea 2020ko gastu aurrekontuan, 100.000 euroko zuzkidurarekin: "Bizikletentzako azpiegituren proiektu pilotua. Metautengo eta Zuñigako udalekiko hitzarmenak" izeneko 230001 23210 7609 441100 partida.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat, eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak,

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Halaber, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua finantzatzen ahal dela edozein gastu programetan erabilgarri dagoen kredituarekin.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2020ko ekitaldian 100.000 euroko kreditu bat ematen da hitzarmen bat finantzatzeko, bizikletentzako bi bide egiteko, bat Zuñigan eta beste bat Metautenen, Trenbide Vasco-Navarroren bide berdearekin lotura egiteko.

Kreditu hori, 100.000 euroko zuzkidura duena, partida honetan aplikatuko da: "Bizikletentzako azpiegituren proiektu pilotua. Metautengo eta Zuñigako udalekiko hitzarmenak" izeneko 230001 23210 7609 441100 partida.

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

Aparteko kreditu horren 100.000 euroko kopurua finantzatuko da indarrean dagoen gastu aurrekontuko "Modernizazio sistemaren mantentzea. INDRA" izeneko 230001 23210 7609 441100 partidan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2020ko urriaren 20an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Castejongo Trenasa enpresa ixtea eta enpresa horretako langileak kaleratzea ekiditeko esku har dezan eta egin beharreko zuzemenak egin ditzan CAF enpresak Castejongo produkzioaren aldeko apustua egin dezan, horri euts diezaion eta, horrenbestez, lanpostuak galtzea eragotz dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, baldin eta azkenean lortzen ez bada Castejongo Trenasaren planta irekita mantentzea, jasotako diru publiko guztia itzul-

tzea exigi dezan, horrek ahalbidetu baitu lan-karga guztia kanpoan kontratatzea; halaber, Nafarroako Gobernua premiatzen du, kasua bada, berehala utz diezaion Solaris Ibérica Saren akzio-dun izateari.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Sodenak Trenasari eta Vectiari emandako dirulaguntza publiko guztien zenbateko eta kontzeptuei buruzko informazio guztia eman diezaion.

4. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Alderdi Popularraren ekimenez 2012an onetsi zen lan-erreforma al bait lasterren indargabetu dezan, premiazkoa baita, negozio-ahalmena duten enpresek produkzio-jarduera ixtea/etetea ahalbidetzen du eta.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari, Estatuko Gobernuari eta CAF eta Trenasa enpresen zuzendaritzari igorriko die erabaki hau”.

Iruñean, 2020ko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ostalari-tzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sektorerako berariazko talka-plan bat taxutu dezan.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2020ko urriaren 23an egindako bilkuran, ezetsi du Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen ostalari-tzaren, gaueko aisialdiaren eta diskoteken sekto-

rerako berariazko talka-plan bat taxutu zezan. Mozioa 2020ko irailaren 29ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldatzea, Mahaiaren 2020ko urriaren 26ko erabakiaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2020ko urriaren 21ean argitaratu da 57/2020 Foru Agindua, urriaren 21ekoa, Osasuneko kontseilariak emana, zeinaren bidez berariazko prebentzio neurri apartekoak hartzen baitira Nafarroako Foru Komunitaterako, COVID-19ak eragindako egoera epidemiologikoak izan duen bilakaeraren ondorioz. Arau horren ondorioz, eritasunaren transmisioa gutxitze aldera esparru parlamentarioan gomendioak eta neurri murriztaileagoak hartu behar dira, zeinek dakarte, besteak beste, barneko gune itxietan baimenduriko gehieneko edukiera gutxitzea. Neurri hauek aldi baterako aurreikusi dira, 2020ko azaroaren 9ra arte hain zuzen, baina luzatzen, aldatzen edo bertan behera uzten ahalko dira egoera epidemiologikoaren arabera.

Hori dela-eta, laguntzeko betebeharrak emandako errekerimendu orokorraren aurrean, bidezkoa jotzen da Nafarroako Parlamentuak onetsitako Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzea.

1.- Nafarroako Parlamentuan jarduera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Plana aldi baterako aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“Bigarrena.- Bilkura ez-presentzialak eta mistoak (presentziala eta bideokonferentziakoa) nola egin.

1. Presentzialak edo mistoak izateko deituak diren osoko bilkuren eta batzordeen bilerak Osoko Bilkuren Aretoan eta Batzorde Aretoetan eginen dira.

Parlamentuko Mahaia eta Batzordeetako Mahaiak Parlamentuko beste areto batzuetan biltzen ahalko dira, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorderik.

2. Osoko Bilkurak eta batzordeen bilkurak presentzialak edo mistoak direnean, ez da gaintutuko areto bakoitzean baimenduriko edukieraren % 30, eta beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira pertsonen arteko metro eta erdiko segurtasun-distantziari eusteko.

3. Osoko Bilkuretan egonen dira Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta gehienez ere bi kontseilari, Mahaiko bost kideak, legelari nagusia edo bere ordezkari legelaria, bai eta talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak hautatutako kideak ere; azken horiek honela banatuko dira, beren garrantzi numerikoari begiratuta:

Navarra Suma talde parlamentarioa:	2
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa:	2
Geroa Bai talde parlamentarioa:	2
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa:	2
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte:	1
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa:	1

Arestikoa gorabehera, interpelazioak eta galderak eztabaidatzeko Osoko Bilkuretan egonen dira Nafarroako Gobernuko lehendakaria eta gehienez bost kontseilari, Mahaiko bost kideak, legelari nagusia eta harekin batera doan legelaria, bai eta talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen eledunak edo horien ordezkariak.

Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatuko da, esku hartu behar dutenean. Bilkura horietan, aurretiazko boto-eskuordetze bidez egiten ahalko da bozketa, Erregelamenduko 94.2.b) artikulua eta lehendakariaren 2020ko martxoaren 24ko 28/2020 Erabakiak xedatuari jarraituz (Foru parlamentarien boto-eskuordetzeari buruzko erabakia, COVID-19 koronabirusak sorturiko osasun-larrialdiko krisiari

erantzutekoa; 38. NPAO, 2020ko martxoaren 25ekoa).

4. Osoko Bilkuren aretoan egiten direnean, batzordeen bilkuretan presentzialki egonen dira haien kide guztiak, bai eta haien lagunduko dien legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria ere. Azken horri bi pertsonak lagunduko diote gehienez.

Nolanahi ere, foru parlamentariak zilegi izanen dute bideokonferentziaz aritzea, bilera mistoak direnean. Era berean, zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariek edo haien laguntzaileek, salbuespenez eta Batzordeko lehendakariari aurretiazko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa egingen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikuluko ezartzen duenari jarraituz.

5. Batzorde aretoetan egiten diren batzorde-bilkuretara joan dira batzordeburua edo haren ordezkariak, talde parlamentario bakoitzaren eta foru parlamentarien elkartearen ordezkariak, haientzat lanean diharduen legelaria eta agerraldia egitekoa den kontseilaria, gehienez ere laguntzaile bat alboan duela. Gainerako kideen parte-hartzea bideokonferentziaz gauzatu da, esku hartu behar dutenean. Zilegi izanen dute bideokonferentziaz esku hartzea kontseilariek edo haien laguntzaileek, salbuespenez eta Batzordeko lehendakariari aurretiazko eskaera eginda. Bilkura horietan, bozketa publikoa egingen da, banan-banan deituta, Erregelamenduko 101. artikuluko ezartzen duenari jarraituz.

6. Mistoak izateko deituriko bilerak alde presentzialki eta alde telematikoki egingen dira, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari eta Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren eta Batzordeen bilkura telematikoa egiteko jarraibideei heldurik (51. NPAO, 2020ko maiatzaren 11koa). Bat-bateko matxura tekniko bat gertatuz gero, parlamentari bati eragotzi egiten diona parte hartzea, dela bideokonferentziaz dela segimendua, eztabaida eta bozketa bermatzeko egokiak diren bestelako sistema teknikoen bidez, eten egingen da bilkura, non eta kasuko parlamentariak ez duen modu fede-emaitzean adierazten baimendu egiten duela bilkurak jarrai dezan”.

“Bosgarrena. - Etendako jarduerak.

1. Bertan behera gelditzen dira Parlamentuz kanpoko jarduerak presentzialak, Legebiltzarreko egoitzaren fatxadaren argiztatzeak izan ezik.

2. Osoko Bilkuretara gonbidaturiko publikoari buruz honako hau aintzat hartu beharko da:

- Bertaratzen ahal diren gehieneko kopurua ezarriko da, kontuan hartuta ezin izanen dutela gainditu eremu horretan baimenduriko edukieraren % 30.

- Bertaratzen direnek eserita egon beharko dute eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia bermatu beharko dute.

- Distantzia-irizpideak betetzen ez dituzten eserlekuak baliogabetuko dira.

- Beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartuko dira sarrera-irteerak era mailakatuan egin daitezen”.

“Seigarrena.- Eraikinerako sarbidea.

1. Parlamentuaren egoitzara sartzeko baimenduta daudenak honako hauek dira: foru parlamentariak eta talde parlamentarioen zein parlamentarien elkartearen laguntzaileak, Lehendakariaren eta Mahaiaren Kabineteko kideak, Parlamentuko langileak, jarduera parlamentarioarako beharrezkoak diren ikus-entzunezko zerbitzuak teknikiak, garbiketa-langileak eta Legebiltzarren funtzionamendu normala bermatzeko ezinbestekoak diren mantentze-lanetako enpresetakoak, bai eta hornitzaileak ere, baldin eta ezinbestekoa bada haien presentzia.

Azken kasu horietan, ahalegina egingen da haien egonaldiaren iraupena ahalik eta laburrena izan dadin kasuko zerbitzua egiteko, eta aplikatzekoak diren osasun-arauak betiere, eta egonaldia betiere egingen da haien segurtasunerako bermearekin, kutsadura-arriskua ekiditeko beharrezkoak diren bitartekoak ezarrita.

Nafarroako Parlamentuko garajera sartzeko ahalik dira soilik baimenduta dauden pertsonak eta ibilgailuak, Nafarroako Parlamentuko garajea erabiltzeko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko Erabakian ezarritakoari jarraituz.

Hedabideak baimenduta egonen dira sartzeko, hurrengo epigrafean ezarritako baldintzetan.

Lehendakariaren, Mahaiaren, talde parlamentarioen eta parlamentarien elkartearen bulegoetara bisitak egitea baimenduko da, betiere aplikatzekoak diren osasun-arauak errespetatuta. Edonola ere, gomendatzen da modu ez-presentzialean egin daitezen eta, halakorik ezean, gehienez ere sei lagun presentziarekin.

Eraikinean fisikoki egotera behartzen duen beste edozein ezohiko inguruabarrek beharrezkoa izanen du lehendakariaren edo idazkari nagusiaren baimena.

Hori guztia ulertzen da ezertan galarazi gabe Foruzaingoak eraikina zaintzeko egiten duen lana.

Neurri hauek indarrean dirauten bitartean, Parlamentuko tabernan ez da ez kafetegi- ez taberna-zerbitzurik emanen.

Kafetegia erabili ahal izanen da bazkaltzeko orduan, horretarako ezarritako ordutegian, betiere Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak ezartzen dituen jarraibideak kontuan hartuta”.

2.- Legebiltzarreko gune bakoitzean bermatu beharko da baimendutako % 30eko gehienezko edukiera betetzen dela eta pertsonen arteko metro eta erdiko distantzia errespetatzen dela.

3.- Erabilera publikoko Parlamentuko areto guztiak ahalik eta maizen aireztatu beharko dira, eta, betiere, egunean 3 aldiz gutxienez.

4.- Gomendatzen da Nafarroako Parlamentuko egoitzan gerta daitezkeen lan-bilkura guztiak modu ez-presentzialean burutu daitezen eta, halakorik ezean, gehienez ere sei lagunen presentziarekin. Hori guztia ezertan galarazi gabe bete

behar direla COVID-19 prebenitzeko osasun agintariak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak eta Legebiltzarreko gune bakoitzeko gehienezko edukiera.

5.- Erabaki hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta 2020ko azaroaren 9ra arte iraunen du, eta egoera epidemiologikoaren arabera Mahaiak zehazten ahalko du horren luzapena, aldaketa edo bertan behera uztea.

6.- Erabaki honek indarririk gabe uzten du Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urriaren 13ko erabakia, Nafarroako Parlamentuan jar-duera presentzialera itzultzeari buruzko Kontingentzia Planaren aldaketari buruzkoa.

7.- Erabaki hau hurrengoei jakinaraztea: foru parlamentariari, Legebiltzarreko langileei, Foruzaingoari eta Nafarroako Gobernuari.

8.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

